AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRIZAINGO SAILA

594

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 3koa, Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen zuzendariarena, Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegia Erakunde Autonomoko Garapen eta Ekoizpen Arloko buruaren lanpostua lan-kontratuko langileekin behin betiko betetzeko barne lehiaketarako deia egiteko dena.

Sail honetan eta Euskal Herriko Polizia Ikastegia Erakunde Autonomoan langile finkoentzako aurrekontuetan diruz hornitutako Garapen eta Ekoizpen Arlo Buruaren lanpostua hutsik dagoenez, eta hori betetzea beharrezkotzat jotzen denez, barne lehiaketarako deia egiten da, Herrizaingo Sailaren eta Euskal Herriko Polizia Ikastegia Erakunde Autonomoaren lan-kontratuko langileen Hitzarmen Kolektiboaren 13. artikuluan xedatzen denaren arabera, 2008ko apirilaren 17an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariak 2008ko martxoaren 18an egindako Ebazpenean.

Horrela, beraz, Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen zuzendariak, eman zaizkion eskumenak erabiliz eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean, erabaki du barne lehiaketarako deia egitea, Herrizaingo Sailean eta Euskal Herriko Polizia Ikastegia Erakunde Autonomoan langile finkoentzako hutsik dauden bi lanpostu betetzeko, honako oinarri hauen arabera:

Lehenengoa.– Lehiaketaren helburua.

Deialdi honen helburua da arauak ezartzea kontratu finkoko lanpostu huts hau betetzeko:

Lanpostuaren kodea:	3202
Dotazioa:	1
Izena:	Garapen eta Ekoizpen Arloko burua
Hizkuntza-eskakizuna:	3
Derrigortasun data:	--/--/----
Betekizunak:	- Informatika Ingeniaritza eta 3 urteko esperientzia antzeko lanetan, edo - Telekomunikabide Goi Mailako Ingeniaritza eta 3 urteko esperientzia antzeko lanetan, edo - Goi-mailako Ingeniaritza / Industri Injinerutza Atala eta 3 urteko esperientzia antzeko lanetan, edo - Fisikan lizentziatua eta 3 urteko esperientzia antzeko lanetan, edo - Matematiketan lizentziatua eta 3 urteko esperientzia antzeko lanetan
Kategoria/Maila:	17
Destinoa:	Erandio / Kudeaketa Ekonomikoa eta Azpiegiturak

Bigarrena.– Lehiaketa honetan parte har dezaketen langileak.

1.– Deialdi honetan parte har dezakete lan-kontratu finkoa duten langileek, baldin eta haien lan-egoera indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboaren aplikazio eremuan sartzen bada, hau da, Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegia Erakunde Autonomoko lan-kontratuko langileen hitzarmenaren aplikazio eremuan. Era berean, irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) zerbitzu aktiboan jardutea edo nahitaezko lan-utzialdian egotea.

b) lan-kontratu finkoko langile gisara urtebeteko zerbitzu-ematea bete izana.

c) Tituluduna izatea eta lanpostu-zerrendan ezarritako betekizun guztiak izatea. Eskainitako lanpostuaren betebeharren artean antzeko zereginetan esperientzia izatea eskatzen denez, deitutako lanpostuaren ordainsari-mailatik 4 maila baino urrutiago ez dagoen lanpostuetan aritu izana egiazta daiteke eta zereginekin zerikusia duten lanpostuetan edota zuzenean menpeko lanpostuetan.

d) betekizun hau betetzea: finkotasun izaera lortu zueneko lanpostuaren esleipenari edo behin betiko lanpostuak betetzeko barne lehiaketa batean egokitu zaion lanpostuari zegokion gehienezko titulazio maila helburu den lanpostuak eskatzen duen gutxieneko titulazio mailaren baliokide izatea. Nolanahi ere, irizpide hori betetzen ez badu, Herrizaingo Sailak aintzat hartuko du postuak betetzeko deialdietan, kasuan kasuko hautaprobak egiten eta gainditzen baditu; ondorioz, hautaproba horiek modu eraginkorrean gainditzeak baldintzatuko du deialdian parte hartzea.

2.– Hautagaiek aipatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko ezarri den epea amaitu aurretik.

Hirugarrena.– Esleipen prozeduraren faseak.

Hauek dira esleipen prozedura egiteko jarraituko diren faseak:

1.– Eskaintzen den posturako onartu diren pertsona hautagai guztien meritu orokorren balorazioa.

Balorazioaren behin-behineko emaitzak argitara emango dira, eta horien aurka, lehiaketan parte hartzen dutenek, bost laneguneko epean erreklamazioa aurkeztu ahalko dute, deialdia egiten duen erakundearen aurrean.

2.– Aurreko fasea gainditzen dutenek bosgarren oinarrian ezartzen den proba egitea.

Behin-behineko emaitzak argitara emango dira, eta horien aurka erreklamazioa aurkeztu ahalko da, bost laneguneko epean, deialdia egiten duen erakundearen aurrean.

3.– Deialdia egiten duen erakundeari dagokion Kalifikazio Batzordeak lanpostuaren esleipen proposamena helaraztea, merituen balorazioan, euskara barne, eta bosgarren oinarrian xedatzen den proban, halakorik balego, lorturiko puntuazioen batuketaren arabera.

4.– Giza Baliabideen zuzendariaren Ebazpena argitaratzea, eskainitako postua behin betiko esleitzeko eta Barne Lehiaketa ebazteko.

Laugarrena.– Merituen balorazioa.

Merituen balorazioan lor daitekeen gehienezko puntuazioa 113 puntukoa da, euskararen ezagutzaren balorazioa salbuetsirik.

Hautagaiek aurkezten dituzten merituak baremo honen arabera balioetsiko dira:

1.a A) Antzinatasuna: kontzeptu hau dela eta, gehienez, 50 puntu lor daitezke.

Honako irizpide hauen arabera egingo da balioztatzea:

● Herrizaingo Sailari edota Euskal Herriko Polizia Ikastegiari atxikitako Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratu finko edo aldi baterako kontratuarekin, edo karrerako funtzionario kontratuarekin edo bitarteko lan-kontratuarekin zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko: 0,23 puntu, eta, gehienez, 35 puntu lor daitezke. Giza Baliabideen Zuzendaritzako Langileen Arloak edota Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloak egiaztatuko ditu zerbitzu horiek.

● Edozein Administrazio Publikotan lan-kontratu finko edo aldi baterako kontratuarekin, edo karrerako funtzionario kontratuarekin edo bitarteko lan-kontratuarekin zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko: 0,075 puntu, eta, gehienez, 10 puntu lor daitezke. Hautagai bakoitzak aurkeztu beharko du zerbitzuaren egiaztagiria, eta langileen arloan eskumena duten erakundeek egindako ziurtagiria beharrezkoa izango da.

● Inoren konturako beste edozein lanetan, Administrazio Publikoa salbu, kontratazio mota edozein izanik ere zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko: 0,04 puntu, eta, gehienez, 5 puntu lor daitezke. Zerbitzu horien ziurtagiria hautagaiek aurkeztu behar dute, eta enpresaren dokumentua edota eskatzailearen adierazpen pertsonala beharrezkoa izango da; kasu batean zein bestean, Gizarte Segurantzaren edo horren baliokidea den Erakunde baten lan-bizitzaren ziurtagiria ere eskatuko da.

B) Egindako lanaren balorazioa: azken hamar urteetan egindako lanari, eskatzen den lanpostuaren eduki funtzionalarekin zerikusia izan behar duenari, gehienez, 40 puntu emango zaizkio, banaketa honen arabera:

● Eskaintzen den lanpostuak baino hiru maila edo gehiagoko balorazio maila duten postuetan egindako lana: 0,33 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 40 puntu.

● Eskaintzen den lanpostuak baino maila bat edo bi maila gehiagoko balorazio maila duten postuetan egindako lana: 0,29 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 35 puntu.

● Eskaintzen den lanpostuak duen balorazio maila bereko postuetan egindako lana: 0,25 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 30 puntu.

● Eskaintzen den lanpostuak baino balorazio maila bat baxuagoko postuetan egindako lana: 0,21 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 25 puntu.

● Eskaintzen den lanpostuak baino bi maila baxuagoko balorazio maila duten postuetan egindako lana: 0,16 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 20 puntu.

● Eskaintzen den lanpostuak baino hiru maila baxuagoko balorazio maila duten postuetan egindako lana: 0,125 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 15 puntu.

● Eskaintzen den lanpostuak baino lau maila edo gehiagoko balorazio maila baxuagoa duten postuetan egindako lana: 0,080 puntu zerbitzua emandako hilabete oso bakoitzeko, eta, gehienez, 10 puntu.

C) Prestakuntzaren balorazioa: eskaintzen den lanpostuaren zereginekin loturiko prestakuntza espezifikoa, gehienez, 20 puntu arte balioztatuko da, irizpide hauen arabera:

1) Unibertsitateko tituluak edo titulu akademikoak, eskaintzen den postua lortzeko beharrezkoak edo nagusiak ez direnak; gehienez, 10 puntu lor daitezke.

– Doktoretza: 5 puntu.

– Lizentziatura, goi mailako ingeniaritza edo arkitektura: 4 puntu.

– Diplomatura, arkitektura teknikoa edo ingeniaritza teknikoa edo baliokidea: 3 puntu.

– Masterrak, diplomak eta aurrekoak ez diren unibertsitateko berezko tituluak: puntu 1 horietako bakoitzeko, eta, gehienez, 2 puntu.

– Goi mailako batxilergoa edo baliokidea: 2 puntu.

– Oinarrizko batxilergoa edo baliokidea: puntu 1.

2) Postuaren zereginekin zuzenean loturiko trebakuntza ikastaroak, azken 7 urteetan egindakoak. Ikastaro horiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Administrazio Publikoko beste Eskolek edo Unibertsitateak antolatu edo homologatu behar izan ditu. Gehienez, 10 puntu emango zaizkie ikastaro horiei, baremo honen arabera:

– 20 orduko edo gehiagoko eta 40 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: gehienez puntu bat ikastaro bakoitzeko.

– 40 orduko edo gehiagoko eta 80 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: gehienez puntu bat eta erdi ikastaro bakoitzeko.

– 80 orduko edo gehiagoko ikastaroak: gehienez bi puntu ikastaro bakoitzeko.

D) Gaztelania ez den Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza: Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizialen ezagutza gehienez 3 punturekin balioztatuko da, 1,5 puntu Hizkuntz Eskola Ofizialeko 3. mailako edo baliokidea den eta homologatua dagoen ezagutza egiaztatzen den hizkuntza bakoitzeko.

2.a Euskara. Euskararen ezagutza baldintzatzat hartzen ez denez, meritu gisara balioztatuko da taula honen araberako portzentajea, eta gainontzeko hautatze prozesuan lor daitekeen gehienezko puntuazioari aplikatuko zaio:

	1. egiaztatuta	2. egiaztatuta	3. egiaztatuta	4. egiaztatuta
3. hizkuntza-eskakizuneko lanpostua	% 5	% 10	% 15	% 20

Bosgarrena.– Probak.

1.– Eskaintzen den postuaren ordainsari maila 14koa edo gehiagokoa denez, ebazpen honen I. eranskinean agertzen den monografian jasotako lanpostuaren eskumenei buruzkoa den proba teoriko-praktiko bat edo proiektu baten defentsa eskatuko da. Proba edo proiektuaren defentsa horrek ez du kanporatzeko baliorik izango, eta honako bi parte hauek izango ditu:

– 5-10 item dituen galdetegia.

– Ezarritako eskakizun batzuen araberako gai bati buruz konponbide-proposamen bat garatzea edo gai bat garatzea.

2.– Eskaintzen den posturako proba, aurreko atalean aipatutakoa; hori egiteko data, ordua, lekua eta modua onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda onesten duen Ebazpenarekin batera argitaratuko da.

3.– Proba horri 0 eta 100 punturen arteko kalifikazioa jarriko zaio.

Seigarrena.– Eskaerak.

1.– Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerek Ebazpen honetako II. eranskinean argitaratutako ereduari jarraitu beharko diote. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneta koa izango da.

2.– Lehiaketa honetan parte hartzen duten langileek deialdia egiten duen Erakundearen Erregistro Orokorrean aurkeztuko dute eskaera, edo Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio-prozedura Bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduaren arabera, eta Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko dira.

3.– Eskaerak eskainitako postuei buruzkoak izango dira, eta horretarako, II. eranskina bete behar da.

4.– Eskatzaileak eskaeren arduradun izango dira horiek aurkezteko epea amaitzen denean, hau da, eskaerei lotuak egongo dira. Eskatzaileak jarri gabe utzitako edo gaizki idatzitako edozein datu ezingo du eskatzaileak erabili ondorengo erreklamazioetarako, eta, era berean, arrazoi beragatik ezingo ditu bere interesak/eskubideak urratutzat eman.

5.– Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-taula guztietan argitara emango da Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Ebazpena; bertan, deialdian onartutako eta kanporatutako eskatzaileen behin-behineko zerrenda azalduko da, eta bost laneguneko epea emango zaie kanporatuak izan diren hautagaiei, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, beharrezko alegazioak aurkezteko eta bestelako zuzenketetarako. Epe horretarako, baliogabetzat joko da abuztuko hilabetea.

6.– Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendan hau agertu behar da:

● onartuen eta kanporatuen izen-abizenen zerrenda,

● kanporatze arrazoia, halakorik balego.

7.– Aurka-egiterik gabe epea igarotzen bada, zerrendak behin betiko izaera hartuko du.

Erreklamaziorik balego, horiek aintzat hartuko edo atzera botako dira Ebazpen berri batean, onartutako hautagaien behin betiko zerrenda onartuko duenean, eta aipatutako tauletan emango da argitara.

Aurka-egiteak lan auzibidearen aurreko erreklamaziotzat hartuko dira; horri buruzkoak dira Administrazio Prozeduraren Legearen 125. artikulua, eta Lan Arloko Prozeduraren Legearen Testu Artikulatua onesten duen apirilaren 27ko 521/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 69. eta hurrengo artikuluak.

8.– Lan arloko Auzitegian demanda jartzen bada ere, prozesuak aurrera jarraituko du; nolanahi ere, badaezpada demandatzailea onartu egingo da, ezin konponduzko kalterik ez sortzeko, baldin

eta gero bere demanda aintzat hartzen bada. Onarpen baldintzatu hori behin betiko zerrendan agertu beharko da, eta horretarako, interesatuak berehala Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio bai demanda jartzeko asmoa, zerrenda argitaratzen den egunaren edo jakinarazpen pertsonalaren egunetik aurrera bost eguneko epean, bai demanda jarrita dagoela, horren kopia aurkeztuz.

Zazpigarrena.– Merituen eta betekizunen egiaztagiria.

1.– Datu, meritu eta betekizun guztiak onartuak izateko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna hartuko da kontuan.

2.– Merituak eta betekizunak arrazoitu eta egiaztatu beharko dira, modu honetan:

● Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko antzinatasuna ofizioz sartu egingo denez, ez da beharrezkoa izango egiaztatzea. Beste Administrazio Publikoetako eta enpresa pribatuetako esperientzia agiri bidez egiaztatuko da, horretarako egindako jatorrizko egiaztagirien bitartez edo Ebazpen honen laugarren oinarrian jasotakoaren arabera.

● Alegatu diren zerbitzuekin aldi berean egindako zerbitzuak ez dira inoiz zenbatuko.

● Lortzen den kategoria profesionalari dagokion ordainsari maila ofizioz sartuko da; ez da, beraz, egiaztatzeko beharrik izango.

● Aintzat hartzea nahi diren titulu ofizial, master, diploma eta ikastaro guztiak aurkeztu beharko dira.

● Langileen Erregistroan ageri ez diren titulu ofizialak baino ez dira egiaztatu beharko.

● Postua betetzeko eskatzen den irizpideetako bat ezagutza espezifikoa denean, beste Erakunde batek aurretiaz igorritako titulu edo ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko da; gauza bera gertatzen da antzeko egitekotan jardun izana eskatzen duen ezagutza espezifikoaren kasuan, deitutako lanpostuaren ordainsari-mailatik 4 maila baino urrutiago ez dagoen lanpostuetan aritu izana egiazta daiteke eta zereginekin zerikusia duten lanpostuetan edota zuzenean menpeko lanpostuetan.

● Parte hartzaileek aurkeztutako eta egiaztatutako merituak besterik ez dira aintzat hartuko; nolanahi ere, Administrazio honek aitortzen dituen eta Langileen Erregistroan jasotzen diren merituak ere ofizioz balioztatuko dira. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den arte egindako merituak besterik ez dira onartuko.

● Irizpideak betetzeko beharrezko edo aurkeztutako datuak ez dira meritutzat hartuko.

● Ez dira trebakuntza ikastarotzat hartuko balioztagarria den titulu bat lortzeko ikasketa programaren parte diren horiek.

● Hizkuntza mailak egiaztatzeko, Hizkuntz Eskola Ofizialeko ziurtagiria edo titulu baliokidea eta homologatua aurkeztu beharko da, eskatzen den maila gainditua izanez gero.

3.– Kalifikazio Batzordeak, prozesuaren edozein unetan, aurkeztutako merituak edo betekizunak ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen agiri osagarriak edo azalpenak eska diezazkieke interesatuei.

4.– Behar bezala egiaztatutako minusbaliotasunen bat duten langileek eska dezakete, eskaeran bertan, hautatutako lanpostua egokitzea, eta horretarako, arloan eskumena duen erakundeak egindako txostena aurkeztu beharko dute, egokitzapenaren bidezkotasuna eta eskatutako lanpostuaren zereginak egiteko bateragarritasuna egiaztatzeko. Administrazioak egokitzapen

horri buruz beharrezkotzat jotzen duen informazioa eska diezaioke interesatuari, eta Lan edo Osasun Administrazioaren erakunde teknikoen txostena ere eska dezake, lanpostua egokitzearen bidezkotasunari eta horren zereginak betetzearekiko bateragarritasunari buruz.

Zortzigarrena.– Kalifikazio Batzordea.

Kalifikazio Batzordea eratuko da deitutako lanposturako, irizpide hauen arabera:

1.– Eraketa.

Batzordeburu batek eta lau batzordekidek osatuko dute. Kalifikazio Batzordeko kide guztiek lanposturako indarrean dagoen Lanpostuen zerrendan eskatzen den maila akademiko bereko edo altuagoko titulazioa izan beharko dute, eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan ezartzen dena bete.

Batzordekideen izen-abizenen zerrenda prozesuan onartutakoen eta kanporatutakoen behin-behineko Ebazpenarekin batera edo horren aurretik argitaratuko da.

Batzorde horretan Giza Baliabideen Zuzendaritzako kide bat ere egongo da, idazkari lanak egingo dituena, eta hitza izango du, baina ez, ordea, botoa emateko eskubiderik; horrek ez du bete beharko aipatutako 7/2007ko Legearen 60. artikuluan ezarritakoa.

2.– Abstentzioa eta errefusatzea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan jasotzen diren gorabeheraren bat dagoenean, Kalifikazio Batzordeko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta organo eskudunari jakinarazi beharko diote; gauza bera gertatzen da deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetara aurkeztu nahi zuten langileak prestatzeko zereginetan jardun badute.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatu den zerbait gertatzen bada, hautagaiek, edozein unetan, batzordekideak errefusatu egin ditzakete, aipatutako lege-testuaren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Aholkularitza.

Edozelan ere, Kalifikazio Batzordeak, egoki deritzon aholkularitza eta materiala jaso dezake, aukeraketa prozesuaren edozein unetan.

4.– Bileren eraketa.

Kalifikazio Batzordea ezingo da eratu eta ezingo du jardun Batzordeburua, idazkaria, eta bi batzordekide, behintzat, ez badaude.

5.– Akordioen erregimena.

Batzordeen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira; berdinketarik egonez gero, batzordeburuak ebatziko du.

6.– Kalifikazio Batzordearen egitekoak:

A) Prozesua objektiboa izateko ardura duenez, deialdiko oinarriak betetzen direla bermatu beharko du eta behar diren erabakiak hartuko ditu, arau-hutsuneak integratzeko eta horiek aplikatzerakoan sortzen diren kontraesanak konpontzeko.

B) Prozesuan onartu eta kanporatu diren behin-behineko eta behin betiko zerrendei buruzko proposamen zehatzak deia egin duen erakundeari bidaliko dizkio.

C) Jasotako egitekoak burutzea eta sortzen diren zalantzak ebazteko behar direnak egitea, eta prozesua behar bezala joateko behar diren erabakiak hartzea, oinarri hauetan aurreikusi gabe geratzen diren gaiei dagokienez.

D) Egokitzat jotako behin-behineko erabakiak aipatutako Iragarki Tauletan argitaratu ahal izatea.

Horien aurka, interesdunek alegazioak aurkez diezazkiokete dagokion batzordeburuari, 5 eguneko epean, eta Batzordeak ebatziko ditu, erabaki bidez. Erabaki horren aurka, auzibidera jo aurretiko erreklamazioa aurkeztu ahalko zaio Giza Baliabideen zuzendariari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 125. artikuluan eta Lan Prozedurari buruzko Legearen 69. artikuluan agindutakoaren arabera.

E) Giza Baliabideen Zuzendaritzari egindako guztia aurkeztuko zaio, puntuaziorik handiena lortu duen eskatzailearekin lanpostua esleitzeko behin-behineko edo behin betiko proposamenekin batera.

7.– Jakinarazpenak eta erreklamazioak aurkezteko, Kalifikazio Batzordeak helbide honetan izango du egoitza: Herrizaingo Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritza, Larrauri Mendotxe bidea 18. zk, 48950 posta kodea, Erandio.

Bederatzigarrena.– Postuaren esleipena eta ondorioak.

1.– Hirugarren oinarriko 3. fasea amaitzen denean, deia egiten duen erakundeak esleipenaren behin betiko ebazpen batez emango du postua, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak txostena bidali ostean; orduan sartuko dira indarrean prozesuaren ondoriozko harreman juridiko-laboraletan eman beharreko aldaketak.

2.– Deialdi honetatik eratortzen den lekualdatzea borondatezkoa da, eta, beraz, arrazoia edozein dela ere ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ekarriko, eta ezin zaio uko egin postua esleitzen denetik aurrera, baldin eta lanean hasteko epea amaitu aurretik deialdi publiko bidez beste destino bat lortzen ez bada.

3.– Lanpostua esleitzeak lan-kontratua berritzea dakar.

4.– Lanpostua esleitzen zaien langileak legez araututako probaldi bat izango dute, baldin eta hautagaia aurretik, edozein kontratu motarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan zeregin berak egiten aritutakoa ez bada.

5.– Deitutako lanpostua esleitzeko hurrenkera merituen baremoaren arabera lortutako guztirako puntuazioak ezarriko du, eta meritu horien barruan egongo dira euskararen ezagutza eta bosgarren oinarrian jasotako frogak.

Berdinketarik gertatuz gero, emakumeak izango du lehentasuna, emakumeen ordezkaritza deialdia argitaratzen den egunean lanpostu horren ordainsari mailaren % 40 baino gutxiago bada; hala ere, neurri hori ez da aplikatuko horrela, egoeraren bat gertatzen bada, sexua dela eta diskriminatzailea ez dena, lanean sartzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuei lehentasuna ematea egokitzat irizten den kasuetan moduan. Berdinketak jarraituz gero, lehentasuna izango du kontzeptu hauetan, hurrenez hurren, puntuazio handiena duen hautagaiak: antzinatasuna, egindako lana, euskara eta, azkenik, lehentasuna izango du adinez helduena den pertsonak.

6.– Postua esleitzen duen behin betiko Ebazpenaren argitalpena izango da interesatuak jakinarazteko modua.

7.– Aurreko lanpostua aipatutako argitalpenaren ondorengo hiru lanegunetan utzi egingo da.

8.– Esleitutako lanpostuan aurrekoa utzi eta ondorengo hamar lanegunetan hasiko da. Postuaren erreserba dakarren egoera batetik parte hartzen den kasuetan, eta lehiaketa honetan beste bat lortzen denean, langile horrek aukera izango du bai esleitutako postuan hasteko bai aipatutako egoera horretan jarraitzeko; azken aukera horretan, erreserba esleitutako postuarena dela ulertuko da.

9.– Lana uzteko eta lanean hasteko epeen zenbaketa interesatuei emandako lizentzia edo baimenak bukatzen diren egunaren biharamunean hasiko da, halakorik balego, edo medikuak alta ematen duen egunaren biharamunean, baldin eta langilea aldi baterako ezintasunagatik bajan badago.

10.– Lanean hasteko eguna zerbitzu aktibotzat hartzen da, horrek dituen ondorio guztietarako.

Hamargarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka demanda aurkez daiteke lan-arloko jurisdikzioan, Herrizaingo Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritzan erreklamazioa aurkeztu ostean, Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio-prozedura Bateratuaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 125. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Erandio, 2012ko otsailaren 3a.

Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSÉ M.ª ECHEGARAY FERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

GARAPEN ETA EKOIZPEN ARLOKO BURUA LANPOSTUAREN DESKRIBAPEN LABURTUA ETA POSTUKO EGITEKOEN DESKRIBAPEN ZEHATZA, INDARREAN DAGOEN MONOGRAFIAREN ARABERAKOA

Lanpostuaren kodea:	3202
Dotazioa:	1
Izena:	Garapen eta Ekoizpen Arloko Burua

LANPOSTUAREN DESKRIBAPEN LABURTUA.

Informazio eta Komunikazioen Teknologien Alorreko Garapen eta Ekoizpen Arloa zuzenduko du, eta Herrizaingo Sailaren aplikazio informatikoen mantentze, ezarpen eta garapenaren azken arduraduna izango da.

EGITEKOEN DESKRIBAPEN ZEHATZA, Herrizaingo Saileko Azpiegitura eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzaren «Garapen eta Ekoizpen Arloko burua» lanpostuari dagozkionak.

1.– Alorreko Batzorde Eragilean parte hartzea:

- Informatika eta Komunikazio Sistemen Plan Estrategikoaren (PESIT/ IKSPE) eta Urteko Ekintza Planaren (PA/ EP) zirriborroak onestea eta baliozkotzea.
- PA / EPn jasotako ekimenen jarraipena egitea:
- PESIT/IKSPE edo PA/EPn jasotako ekimen eta proiektuei buruz aldaketak egiteko edo aurreikusitakoa laburtzeko egin litezkeen proposamenak onestea edo ezestea.
- Proiektu bakoitzari dagozkion lantaldeak zehaztea.
- Bereak dituen ekintzak eta arriskuak antzematea.
- Barne jarraipenerako batzarretan sor litezkeen ezadostasunak erabakitzea

2.– Arloko beharrak aztertzea eta dituen baliabideen erabilera optimizatzea, bai giza baliabideena, bai baliabide materialena ere.

3.– Erabiltzaileei laguntza ematea haien beharrei erantzunez eta Informazio Sistemen esparruan sor litezkeen arazoak konponduz.

4.– Informazio Sistemak gainbegiratzea:

- Garapenerako arauak eta irizpideak ezartzea.
- Jarraipen eta ebaluaziorako metrikak eta adierazleak ezartzea.
- Koherentzia zaintzea.
- Helburuak zehaztea.
- Errentagarritasuna eta arriskuak aztertzea.
- Helburuak egiteko lana planifikatu eta koordinatzea.

- Erabiltzaileen prestakuntza planifikatzea.

5.– Atalen lana planifikatzea, antolatzea, banatzea eta zaintzea.

6.– Eskainitako zerbitzuaren kalitatearen jarraipena egitea.

7.– Arloko jardueraren jarraipena egiteko beharrezkoak diren txostenak egitea.

8.– Kanpoko hornitzaileekin eta gainerako Arlo eta Alorrekin ere jardutea.

9.– Arloko langileen prestakuntza eta birziklatze beharrak antzematea eta horretarako beharrezko diren planak martxan ezartzea defendatzea (Ikastaroak, erakustaldiak, etab., norberarenak eta langileenak).

II. ERANSKINA

HERRIZAINGO SAILEKO ETA EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOKO GARAPEN- ETA EKOIZPEN-ARLOKO BURUA LANPOSTUA LAN-KONTRATUKO LANGILEEKIN BEHIN BETIKO BETETZEKO BARNE LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA, 2012KO OTSAILAREN 3KO EBAZPEN BIDEZ DEITUA

1.– Datu pertsonalak.

1. abizena:	2. abizena:
Izena:	NAN zk.:
Jaiotze Data:	Telefonoa:
Helbidea (kalea-zk.-solairua-posta kodea-udalerria)	

2.– Datu profesionalak.

Titularitatea zein postutan duzun (Izena)	Destinoa:
Kodea:	Dotazioa:
Ordainsari maila:	Postuan hasitako eguna:

3.– Aurkezten diren merituak.

A) Antzinatasuna.

A.1.– Herrizaingo Sailean edota Euskal Herriko Polizia Ikastegian emandako zerbitzuak, kontratu finkoarekin edo aldi baterako kontratuarekin.

Lanpostua	Kode zk.	Dotazio zk.	Maila	Noiztik	Noiz arte

A.2.– Edozein Administrazio Publikotan emandako zerbitzuak, Herrizaingo Sailean eta Euskal Herriko Polizia Ikastegian emandakoak salbu.

Lanpostua Izena	Administrazio Publikoa	Noiztik	Noiz arte

A.3.– Inoren kontura beste edozein lanetan emandako zerbitzuak, Administrazio Publikoan emandakoak salbu.

Lanpostua Izena	Enpresa / Erakundea	Noiztik	Noiz arte

B) Egindako lanaren balorazioa.

(Idatzi eskatzen den postua eta azkeneko hamar urteetan egindako lana, laugarren oinarriko 1.b puntuan ezartzen denaren arabera).

Eskatutako postuaren kodea	Postu hauetan egindako lana:	Noiztik	Noiz arte
	•		
	•		
	•		
	•		
	•		
	•		
	•		

C) Prestakuntzaren balorazioa.

1) Titulazio akademikoak.

Izena	Ikastegia	Urtea
Doktorea		
Arkitektura, Goi mailako Ingeniaritzan Lizentziatua		
Diplomatura, Arkitektura eta Ingeniaritza Teknikoa		
Masterrak, diplomak eta berezko tituluak		
Goi mailako batxilergoa edo baliokidea		
Oinarrizko batxilergoa edo baliokidea		

2) Jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak.

Izena/Titulua	Erakundea/ Ikastegia	Ordu kopurua	Data	
			Noiztik	Noiz arte

D) Europar Batasuneko atzerriko hizkuntza maila.

Egiaztatutako maila	Hizkuntza

Euskara – Maila

Egiaztatutako maila		Egiaztagiria edo titulua
1. maila		
2. maila		
3. maila		
4. maila		

Zein hizkuntza ofizialetan egin nahi den proba (gurutze batekin adierazi)

Gaztelania ☐ Euskara ☐

Eskaera honekin batera aurkezten den dokumentazioa:

Betekizunak:

-
-

Antzinatasuna:

A.2.–

-
-

A.3.–

-
-

Titulazio akademikoak:

-
-

Jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak:

-
-
-
-

Europar Batasuneko atzerriko hizkuntza ofizialen egiaztagiriak/tituluak:

-
-

Hizkuntza mailen baliokideak diren egiaztagiriak/tituluak:

-

Lanpostuaren egokitzapena (7.4 oinarriaren arabera).

Minusbaliotasuna dela eta, 3202 Garapen eta Ekoizpen Arloko Burua lanpostuaren egokitzapena eskatzen dut.

Sinatzen duenak hautapen-prozesuan onartua izatea eskatzen du, eta ziurtatzen du eskaera honetan emandako datuak benetakoak direla eta Deialdiaren Oinarrietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituela.

……, 2012ko ……ren ……(e)an.

Sinadura: Administrazioan sartzeko zigilua

HERRIZAINGO SAILEKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARI JAUNA